



DIRU-ITURRIAK

Gure diru-iturri nagusia, produktu zehatz bat saltzen dugunez, aktiboaren salmenta izango da. Produktua nola ez **Txope-Tex** da. Produktua noski momentuan ordaindu behar da oso gutxi balio duelako, orduan ordainketa bakarreko diru-sarrera dela esan dezakegu. Gure produktuei zerrendako prezioa erantsiko zaie izan ere, kalitate bereziko modelo ezberdinak **saltzeko** ahalmena eskuratuko dugu, bakoitza adieraizitako prezio zehatzarekin. Hau da, produktu bakoitzaren prezioa ez da aldatuko baina bai produktu ezberdinen arteko **prezioa**. Esan dezakegu boligrafo bakoitzak bere prezioa duela esleituta denda batean bezala.



Azpimarratu behar dugu, hasiera hontan produktu bakarra merkaturatu dugula, Txope-Tex, baina etorkizunean gehiago salduko ditugu. Enpresa sortzeko bakoitzak diru **ekarpen** minimo bat egin behar izan dugu enpresa indar nahikoarekin hasiz. Gainera, enpresa sortu berri dugunez enpresa berriei ematen zaien **diru laguntza** eskuratzea lortu dugu. Oraingoz hauek dira gure diru-sarrera nagusiak eta bakarrak, baina ez dugu ezeztatzen etorkizunean beste diru-iturri batzuk edukitzea, hala nola, maileguak, lizentziak edota sari ezberdinak.